



Mutrikuko Udala

MUTRIKUKO HONDARTZEN, BAINU-GUNEEN ETA PORTU-INGURUNEAREN ERABILERA ARAUTZEKO ORDENANTZA

HITZAURREA ETA ZIOEN AZALPENA

Mutrikuko itsasertza udalerriko elementu natural, sozial eta ekonomiko nagusietako bat da. Bere berezitasunen artean nabarmentzekoa da hondartzen, bainu-guneen, igerileku naturalen eta portu-eremuaren arteko elkarbizitza, non administrazio eskumen desberdinak (udalak, Estatuko Kostaldeen Administrazioa eta Eusko Jaurlaritzako portu-agintaritza) gainjarri egiten diren.

Testuinguru horretan, beharrezkoa da erabilera arautzea, herritar guztien erabilera publikoa bermatzeko, segurtasuna eta osasun publikoa zaintzeko eta ingurumenaren babesa ziurtatzeko.

Ordenantza hau Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legean eta Kostaldeei buruzko 22/1988 Legean oinarritzen da.

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea da Mutrikuko itsasertzeko hondartzen, bainu-guneen eta igerileku naturalen erabilera, kontserbazioa, babesa eta antolaketa arautzea, erabilera publikoa bermatuz eta, aldi berean, segurtasuna, osasun publikoa eta ingurumenaren babesa ziurtatuz.

2. artikulua. Aplikazio-eremua

Ordenantza hau aplikatuko da Mutrikuko udal-mugardean kokatutako honako eremu hauetan:

- Ondarbeltz hondartzan
- Saturraran hondartzan
- Hiriguneko hondartzan
- Igerileku naturaletan, haien titulartasuna edo kudeaketa edozein administraziori dagokiola ere
- Aipatutako eremuen inguruneetan, sarbideetan eta zerbitzu-guneetan

Era berean, ordenantza hau aplikatuko da, bere xedearen barruan, udalerriko itsasertzeko gainerako guneetan ere, baldin eta horiek bainu-gune edo aisialdiko erabilerako eremu gisa erabiltzen badira.

Ordenantza hau indarrean egongo da, bere eskumen-esparruan, uztailaren 28ko 22/1988 Kostaldeei buruzko Legeak I. Tituluan zehaztutako itsas-lehorreko jabariko eremu osoan, baita portu-eremuan eta haren ingurunean ere, kasu bakoitzean eskumena duten

administrazioen (bereziki, Estatuko Kostaldean Administrazioa eta Eusko Jaurlaritzako Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza) eskumenak errespetatuz.

Ordenantza honen aplikazioak ez du inola ere eragotziko beste administrazio publikoek beren eskumenen esparruan ezarritako araudia betetzea, eta, beharrezkoa denean, administrazio horiekin koordinatuta jardungo da.

3. artikulua. Hondartzen erabilera.

Hondartzen, bainu-guneen eta igerileku naturalen erabilera libre, publikoa eta doakoa izango da, haien izaerarekin bateragarriak diren erabilera arruntetarako, hala nola paseatzea, egotea, bainatzea eta inolako obra edo instalaziorik behar ez duten antzeko jarduerak, betiere indarrean dagoen legeriarekin, aplikatu beharreko araudiarekin eta ordenantza honekin bat etorriz egiten badira.

Hondartzan eta itsasoan modu baketsuan paseatzeak, egoteak eta bainatzeak lehentasuna izango dute beste edozein erabileraren gainetik.

Intentsitate, arrisku edo errentagarritasun bereziak dituzten erabilerak, bai eta obrak edo instalazioak behar dituzten jarduerak ere, soilik egin ahal izango dira dagokion erreserba, esleipen, baimen edo emakidaren babesean. Kasu horietan, Kostaldee buruzko 22/1988 Legean, haren garapen-araudian eta, hala badagokio, aplikatu beharreko gainerako arau sektorialetan xedatutakoa bete beharko da.

Hondartzek, bainu-guneek, igerileku naturalek eta haien inguruek ezin izango dute erabilera pribatiborik izan, salbu eta Kostaldee buruzko Legeak eta haren araudiak demanio-erreserbei edo emakidei buruz ezarritako kasuetan.

Inola ere ez da baimenduko itsas-lehorreko jabariko publikoaren okupazioa, salbu eta indarrean dagoen araudiak aurreikusten dituen kasuetan eta ezarritako prozeduraren bidez.

Ezin izango da inolako eskubide pribaturik alegatu, ezta usukapioaren bidez ere, itsas-lehorreko jabariko eremuetan, edozein dela ere igarotako denbora.

II. TITULUA. ERABILERA ARAUAK

4. artikulua. Debekatutako erabilerak

Hondartza denboraldian (bai hondarretan, bai itsas uretan) debekatuta egongo da behar bezala balizaturiko bainu-guneetan, eta banderen edo adierazleen bidez bainularientzat gordetako guneetan kirol eta aisia nabigazioa egitea, eta belaz nahiz motores mugitzen den edo gila zurruna duen edozein ontzi edo bitarteko flotatzaile erabiltzea ere. Ontzia itsasoratu edo lehorretaratzeko, behar bezala seinalezaturiko ubideak erabili beharko dira.

Debeku horretatik salbuetsita daude salbamendu eta sorospeneko zerbitzuekin, garbiketakoekin, eta poliziaren edo agintaritza eskumendunaren zerbitzuekin erlazionatutako ontziak.

Era berean, debekatuta egongo da:

- a) Gainerako erabiltzaileei traba egin edo haien segurtasuna arriskuan jar dezakeen edozein jarduera egitea (kirolak, musika, jolasak edo bestelakoak), salbu eta Udalak antolatutako edo baimendutako jarduerak, behar bezala seinaleztatutako guneetan egiten direnean.
- b) Irrati-aparatuak, musika-tresnak, bozgorailuak edo hotsa sortzen duen edozein gailu erabiltzea, inguruko erabiltzaileei eragozpenak sortzen dizkieten baldintzetan, erabiltzailearentzat bakarrik entzuteko moduko sistematik gabe, hondartzako zerbitzu baimenduek erabilitakoak izan ezik.
- c) Sua egitea edo elikagaiak prestatzeko edozein su-mota erabiltzea (sukalde eramangarriak, kanpin-gasa, barbakoak edo antzekoak).
- d) Pasealekuetan, sarbideetan edo igarobideetan oztopoak jartzea, hala nola aulkiak, mahaiak edo bestelako elementuak.
- e) Hondartzan kanpin-mahaiak edo antzeko elementuak jartzea, erabilera arruntarekin bateragarriak ez badira.
- f) Norbanakoek inolako errotulu, mugarri edo seinaleak jartzea hondartzan.
- g) Ibilgailuak hondartzetan ibiltzea edo aparkatzea, salbu eta baimendutako zerbitzu publikoetakoak badira (salbamendua, sorospena, garbiketa edo antzekoak).
- h) Edozein motatako kanpalekuak edo kanpaldiak egitea, iraupena edozein dela ere, dagokion administrazio eskudunaren berriazko baimenik gabe.
- i) Norbanakoek toldoak edo antzeko egiturak jartzea, udal baimenik gabe.
- j) Hondarra, legarra edo bestelako baliabide naturalak kentzea edo eramatea.
- k) Publizitatea egitea, edozein euskarri erabilita (kartelak, megafonia, ikus-entzunezko baliabideak edo aire bidezkoak), dagokion baimenik gabe.
- l) Urpeko arrantzako tresnak modu arriskutsuan erabiltzea, bereziki fusila kargatuta hondartzatik itsasoratzea edo lehorreratzea, edo tresna horiek lehorrean manipulatzeko.
- m) Eguzkitakoak, itzalkinak, aulkiak edo bestelako objektuak jartzea erabiltzaile presentziarik gabe, espazio publikoa erreserbatzeko asmoz.
- n) Garbiketa-zerbitzuen jarduera oztopatzea edo eragoztekoa, eta, bereziki, udaldian hondartzan gaua igarotzea.

5. artikulua. Antolaketa, zaintza eta osasun-laguntza.

Mutrikuko hondartza eta igerileku naturaletan zaintza, salbamendu eta osasun-laguntza

zerbitzuak urte bakoitzeko udaldian emango dira, oro har ekainaren 15etik irailaren 15era arteko egun guztietan.

Hala ere, Udalak, egoki iritziz gero, urtero zehaztuko ditu bainu-denboraldiaren hasiera eta amaiera datak, eta horiek garaiz jakinaraziko dira.

Zaintza eta sorospen zerbitzuek Udalak ezarritako ordutegia izango dute, eta ordutegi hori behar bezala jakinaraziko da.

Bainu-denboralditik kanpo edo zaintza eta sorospen zerbitzuetarako ezarritako ordutegitik kanpo bainatzen diren pertsonak beren erantzukizunpean egingo dute.

Era berean, bainu-denboraldian eta zerbitzuen ordutegian egonik ere, beren erantzukizunpean jardungo dute honako kasu hauetan:

- a) Salbamendu eta sorospen zerbitzuek emandako jarraibideak edo oharrak ez badituzte errespetatzen.
- b) Bainurako balizatutako guneetatik edo banderen bidez seinaleztatutako eremuetatik kanpo bainatzen badira.

Itsasoaren egoera eta Osasun Sailak zehaztutako uraren kalitate-baldintzak kontuan hartuta, hondartzako zaintza eta laguntza zerbitzuek adieraziko dute bainua baimenduta dagoen ala ez, eta zein baldintzatan.

Jasotako informazioa baloratuta, Udalak hondartza eta bainu-guneak zabalik mantendu edo, beharrezkoa bada, itxi ahal izango ditu.

Hondartzetako erabiltzaileei ematen zaien informazioa seinaleztapen bidez egingo da, nagusiki piktogramen bidez eta euskarazko testuez lagunduta.

Euskara eta beste hizkuntza batzuk erabiltzen direnean, euskara lehenetsiko da.

Osasunari eta segurtasunari buruzko ahozko mezuak bi hizkuntzatan edo gehiagotan emango dira, betiere euskarari lehentasuna emanez.

6. artikulua. Bainua.

Itsasoaren egoera, uraren kalitatea eta osasun-agintariek ezarritako irizpideak kontuan hartuta, Udalak erabakiko du bainua baimenduta dagoen ala ez, eta zein baldintzatan egin daitekeen.

Informazio hori hondartzako zaintza eta sorospen zerbitzuen bitartez emango da.

Hondartza eta bainu-eremuetan mastak jarriko dira, eta bertan kokatutako banderen bidez adieraziko da bainuaren egoera, kolore hauen arabera:

- **Bandera gorria:** bainua debekatuta dago.
- **Bandera horia:** bainua baimenduta dago, baina kontu handiz.
- **Bandera berdea:** bainua libre da.

- **Bandera zuria, dagokion sinboloarekin (adibidez, marmokak):** bainua debekatuta edo baldintzatuta egongo da adierazitako arriskuaren ondorioz.

Bainulariek une oro bete beharko dituzte:

- a) Banderen eta gainerako seinaleztapenaren bidez emandako adierazpenak.
- b) Zaintza eta sorospen zerbitzuek segurtasun-arrazoiengatik emandako jarraibideak.
- c) Organo eskudunek emandako xedapenak, indarrean daudenak zein etorkizunean ezar daitezkeenak.

7. artikulua. Garbitasun arauak

Mutrikuko Udalak bermatuko du hondartzak, bainu-guneak eta haien inguruneak garbitasun, higiene eta osasun baldintza egokietan mantentzea.

Horretarako:

- a) Udalak edukiontziak eta zakarrontziak jarriko ditu hondartzetako sarbideetan eta zerbitzu-guneetan.
- b) Udalak, Debararrenako Mankomunitatearen bidez, edukiontzi eta zakarrontzien hustuketa eta garbiketa egingo du.
- c) Gipuzkoako Foru Aldundiak hondartzetan kokatutako zakarrontzien mantentze-lanak eta hustuketa egingo ditu, eta hondar gainazalean dauden hondakinak kentzeaz arduratuko da.
- d) Eusko Jaurlaritzak portu-eremuan kokatutako zakarrontzien instalazioa, mantentzea eta hustuketa egingo ditu.

Hondartzen eta bainu-guneen erabiltzaileek nahitaez errespetatu beharko dituzte garbitasunari eta ingurumenaren babesari buruzko arauak.

Debekatuta dago:

- a) Hondakinak edo zaborrak horretarako jarritako edukiontzi eta zakarrontzietatik kanpo uztea edo botatzea.
- b) Zakarrontzietan edo edukiontzietan tamaina handiko objektuak sartzea, hala nola esterak, itzalkinak, koltxonetak edo antzekoak, horretarako berariazko sistemarik ez badago.
- c) Itsasoko uretan, dutxetan edo oin-garbigailuetan norbere burua edo beste pertsona batzuk garbitzea xaboia, gela, xanpua edo antzeko produktuak erabiliz.
- d) Hondartzan, itsasoan edo pasealekuko gune publikoetan kaka edo pixa egitea.

- e) Dutzak, oin-garbigailuak, komunak edo hondartzako hiri-altzariak berezko erabilerarako ez diren bestelako helburuetarako erabiltzea.
- f) Hondarretan edo itsas uretan edozein motatako hondakinak uztea edo botatzea.
- g) Fruitu lehorren azalak, zigarro-mutxikinak edo antzeko hondakinak hondartzan uztea.
- h) Sua egitea edo parrillak, barbakoak edo antzeko instalazioak erabiltzea.

8. artikulua. Kirolak eta jarduera fisikoak

Hondartza, bainu-gune eta igerileku naturaletan kirol- eta aisialdi-jarduerak egin ahal izango dira, baldin eta jarduera horiek:

- Beste pertsona batzuei arriskurik edo eragozpenik sortzen ez badiete,
- Gainerako erabilerak oztopatzen ez badituzte,
- Bainurako mugatutako guneetara sarbidea eragozten ez badute, eta
- Une bakoitzean dagoen espazio libreak jarduera hori egitea ahalbidetzen badu.

Udalak, beharrezkoa denean, kirol-jarduerak mugatu, antolatu edo debekatu ahal izango ditu segurtasun-arrazoiengatik, erabileren bateragarritasuna bermatzeko edo espazioaren kudeaketa egokia ziurtatzeko.

Debekatuta dago honako kirol eta jarduera hauek praktikatzeari:

- a) Sokak, ainguraketak edo bestelako lotura-sistemak behar dituzten jarduerak.
- b) Trakzio mekanikoa edo animaliena behar duten kirolak.
- c) Zaldi-kirolak, edozein modalitatetan.
- d) Ibilgailu motordunak behar dituzten kirolak (autoak, motorrak, quad-ak eta antzekoak).
- e) Golfa edo antzeko jarduerak.
- f) Jaurtiketa-jarduerak (barra, xabalina, diskoa edo antzekoak).
- g) Itsasgoran edo igerileku naturalen inguruan espazio mugatua dagoenean, baloi-jokoak edo antzeko kirolak egitea (futbola, pilota, pala eta antzekoak), baldin eta arriskua edo eragozpena sortzen badute.
- h) Haizearen bidez mugitzen diren eta sokak, ainguraketak edo amarradurak behar dituzten jarduerak, hala nola parapenteak, paraxutak edo antzekoak.

9. artikulua. Animaliak.

Animaliak hondartzetan eta bainu-eremuetan sartzea eta bertan egotea Mutrikuko **Animaliak Eduki eta Babesteko Udal Ordenantza arautzaileak** ezarritakoaren arabera arautuko da.

Aipatutako ordenantzaren 26. artikulua d) atalean xedatutakoarekin bat etorriz, maiatzaren 1etik urriaren 31ra, debekatuta egongo da animaliak hondartzetan eta igerilekuetan sartzea eta bertan egotea.

Hala ere, ordenantza horretan bertan aurreikusitakoaren arabera, maiatza eta urriko hilabeteetan, txakurrak 20:00etatik 09:00etara egon ahal izango dira aipatutako eremuetan.

Artikulu honetan xedatutakoak ez du eragotziko indarrean dagoen araudiak aurreikusten dituen beste salbuespen edo baldintza bereziak aplikatzea, hala nola laguntza-txakurrei edo antzeko kasuei dagozkienak.

10. artikulua. Aldi baterako aparteko jarduerak.

Hondartzetan, bainu-eremuetan eta igerileku naturalen izaera bereziko jarduerak egin ahal izango dira, hala nola kirol-probak, kultur ekitaldiak, jarduera ludikoak edo antzekoak, betiere aldi baterakoak badira eta espazioaren erabilera arrunta, segurtasuna eta ingurumenaren babesa kaltetzen ez badituzte.

Jarduera horiek egiteko, nahitaezkoa izango da Mutrikuko Udalaren aurretiazko baimena lortzea.

Baimen hori ematea baldintzatuta egongo da, hala badagokio, kasuan kasuko administrazio eskudunek (bereziki, Espainiar Estatuko Kostaldean Administrazioak edo Eusko Jaurlaritzako portu-agintaritzak) eman beharreko baimen, emakida edo txostenak lortzera.

1. Interesdunek dagokion eskaera aurkeztu beharko dute, gutxienez honako hauek zehaztuz:
 - a. Jardueraren deskribapena eta helburua.
 - b. Kokapena eta okupatuko den azalera.
 - c. Iraupena eta ordutegia.
 - d. Baliabide material eta pertsonalak.
 - e. Segurtasun-neurriak eta larrialdi-plana.
2. Udalak eskaera aztertuta, baimena eman edo ukatu ahal izango du, honako irizpideak kontuan hartuta:
 - a. Segurtasuna eta osasun publikoa.
 - b. Ingurumenaren babesa.
 - c. Gainerako erabiltzaileen eskubideak.
 - d. Hondartzaren erabilera arrunta.
3. Baimena ematean, Udalak baldintza espezifikoak ezarri ahal izango ditu, besteak beste:
 - a. Kokapena, azalera eta ordutegia mugatzea.
 - b. Segurtasun eta sorospen neurriak ezartzea.

- c. Garbiketa eta hondakinen kudeaketa bermatzea.
 - d. Zarata-mailak mugatzea.
 - e. Instalazioen izaera eta muntaketa-baldintzak zehaztea.
4. Jarduera antolatzaileak bere gain hartuko du sortutako kalteen erantzukizuna, eta beharrezkoa bada:
- a. Erantzukizun zibileko aseguria kontratatu beharko du.
 - b. Fidantza ekonomikoa aurkeztu beharko du, kalteak konpontzeko eta eremua lehengoratzeko.
5. Jarduera amaitu ondoren, erabilitako eremua jatorrizko egoeran utzi beharko da, eta garbiketa-lanak antolatzailearen kontura izango dira.
6. Udalak baimenik gabe egindako jarduerak edo ezarritako baldintzak betetzen ez dituztenak berehala eteteko agindua eman ahal izango du, eta dagokion zehapen-prozedura hasiko da.

III. TITULUA. ZEHAPEN ARAUBIDEA

11. artikulua. Polizia-lanak hondartzan

Mutrikuko Udalari dagokio ordenantza honetan jasotako xedapenen betearazpena eta kontrola bermatzea, bere eskumenen esparruan.

Udaleko agenteek, udaltzainek eta horretarako gaitutako langileek hondartzetan, bainu-eremuetan eta igerileku naturaletan zaintza-, kontrol- eta ikuskapen-lanak egingo dituzte, ordenantza honen betetze-maila egiaztatzeko.

Udaleko agenteek eta gaitutako langileek erabiltzaileei jarraibideak, oharrak eta aginduak eman ahal izango dizkiete segurtasuna, osasun publikoa, ingurumenaren babesa eta ordena publikoa bermatzeko.

Agindu horiek nahitaez bete beharko dira.

Arau-hausteen kasuan, udal-agenteek beharrezko neurriak hartu ahal izango dituzte egoera zuzentzeko, besteak beste:

- a) Jarduera etetea.
- b) Instalazioak edo elementuak kentzea.
- c) Arrisku-egoerak berehala neutralizatzea.

Udalak koordinazioan jardungo du, beharrezkoa denean, eskumena duten gainerako administrazioekin, bereziki Estatuko Kostaldean Administrazioarekin eta Eusko Jaurlaritzako portu-agintaritzarekin.

Arau-hausteren bat atzemanaz gero, dagokion zehapen-prozedura hasi ahal izango da, ordenantza honetan eta aplikatu beharreko gainerako araudian xedatutakoaren arabera.

12. artikulua. Arau-hausteak.

Ordenantza honetako debekuak edo aginduak ez betetzeak administrazio arau-haustetzat hartuko dira.

Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izango dira.

Arau-hauste arinak

Honako hauek izango dira, besteak beste:

- a) Hondartzan edo bainu-eremuetan zarata edo eragozpen arinak sortzea, beste erabiltzaileei kalte nabarmenik eragin gabe.
- b) Hondakinak behar bezala ez uztea, zakarrontzietatik kanpo uztea edo edukiontzia erabilera desegokian erabiltzea.
- c) Hondartzako instalazioak edo hiri-altzariak (dutexak, oin-garbigailuak, komunak) modu desegokian erabiltzea.
- d) Kirol-jarduerak egitea ezarritako baldintzak bete gabe, arrisku larriarik sortzen ez bada.
- e) Eguzkitakoak, itzalkinak edo antzeko elementuak uztea erabiltzaile presentziarik gabe, espazioa erreserbatzeko.

Arau-hauste larriak

Honako hauek izango dira, besteak beste:

- a) Bainu-guneetan nabigazioa egitea edo ontziak erabiltzea baimenik gabe.
- b) Debekatutako jarduerak egitea, hala nola sua egitea, kanpaldiak egitea edo publizitatea baimenik gabe egitea.
- c) Ibilgailuak hondartzan sartzea edo bertan aparkatzea baimenik gabe.
- d) Garbitasun arauak urratzea modu nabarmenean, hala nola hondakinak hondarrean edo uretan uztea edo pixa/kaka egitea gune publikoetan.
- e) Animaliak sartzea debekatutako epeetan.
- f) Udalaren baimenik gabe jarduera bereziak edo ekitaldiak antolatzea.
- g) Udal-agenteen edo sorospen zerbitzuen aginduak ez betetzea.
- h) Kirol edo jarduera debekatuak egitea (ibilgailu motordunak, jaurtiketa-jarduerak, etab.).
- i) Hiru arau-hauste arin egitea.

Arau-hauste oso larriak

Honako hauek izango dira, besteak beste:

- a) Bandera gorriaren debekua ez errespetatzea eta bainatzea.
- b) Sorospen zerbitzuen aginduak modu larrian edo errepikatuan ez betetzea.
- c) Beste pertsonen segurtasuna arrisku larrian jartzen duten jarduerak egitea.
- d) Ingurumenari kalte larriak eragitea, hondakinak edo substantziak uretan edo hondarrean isuriz.
- e) Hondartza edo bainu-eremua baimenik gabe okupatzea edo erabilera publikoa eragozte.
- f) Hiru arau-hauste larri egitea.

13. artikulua. Zehapenak.

Ordenantza honetako aginduen arau-hausteak honela zigortuko dira (hurrengo atalean xedatutakoa izan ezik, eta lehentasunez aplikatzeko legeria sektorialean aurreikuspen berezirik ezartzen bada izan ezik):

- a) Arau-hauste arinak: ohartarazpena eta 500 euro arteko isuna.
- b) Arau-hauste larriak: 501 eurotik 1.500 eurora arteko isuna.
- c) Arau-hauste oso larriak: 1.501 eurotik 3.000 eurora arteko isuna; dena den, beste erakunde eskudun batzuek hortik gorako zigorrak jarri ahalko dituzte, araudi espezifikoko aplikagarriekin bat etorriz.

Arrantza arloko arau-hausteak: arrantza arloko indarreko araudian jarritakoak izango dira, eta horren arabera zigortuko dira.

Animalia arloko arau-hausteak animaliak eduki eta babesteko mutrikuko udal ordenantza arautzailea jarritakoak izango dira, eta horien arabera zigortuko dira.

Berdintasuneko arau hausteak: arlo horretako indarreko araudiaren arabera zigortuko dira.

* Preskripzioa: Euskal Administrazio Publikoen zeha tze ko ahalari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legearen 22. artikulua dioenaren arabera, arau-hauste larriek 3 urtera preskribatuko dute; larriek, bi urtera; eta arinek, sei hilabetera.

14. artikulua. Erantzuleak.

Ordenantza honetan aurreikusitako arau-hausteen erantzule izango dira arau-hausteak egiten dituzten pertsona fisikoak zein juridikoak.

Erantzukizuna ez da mugatuko egilearen jardunera bakarrik; halaber, zuzenbide arruntaren arabera norberaren ardurapean dauden pertsona, animalia edo ondasunen jardueren ondoriozko egintzengatik ere eskatu ahal izango da.

Zehapen-prozeduraren ondoriozko administrazio-erantzukizuna bateragarria izango da arau-hausleari egoera jatorrizkora lehengoratzeko betebeharra ezartzearekin, baita eragindako kalte eta galerak ordaintzeko obligazioarekin ere.

15. Artikulua. Zehapen prozedura

Ordenantza honetan aurreikusitako arau-hausteengatik ezarriko diren zehapenen prozedura administratiboa izango da, eta honako araudi hau aplikatuko da:

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea.
- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- Aplikagarri diren gainerako xedapenak.

Ordenantza honen babesean irekitzen diren zehapen-espedienteak ebazteko eskumena Alkatearena izango da, edo hark eskuordetutako organo edo pertsonarena, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Zehapen-prozedura ofizioz edo salaketa bidez hasi ahal izango da, arau-haustearen zantzuak daudenean.

Prozeduran zehar, egitateak egiaztatzeko behar diren jarduketak egingo dira, eta interesdunari entzunaldia emango zaio, bere eskubideak defendatzeko.

Prozedura amaitzean, organo eskudunak dagokion ebazpena emango du, zehapena ezarriz edo espedientea artxibatuz.

Ebazpena irmoa denean, ezarritako zehapena bete beharko da.

Prozedura izapidetzen den bitartean, Udalak beharrezko neurri kautelarrak hartu ahal izango ditu, segurtasuna, osasun publikoa edo ingurumenaren babesa bermatzeko, besteak beste:

- a) Jarduerak berehala etetea.
- b) Instalazioak edo elementuak kentzea.
- c) Arrisku-egoerak neutralizatzea.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honetan aurreikusten ez den guztian, honako araudia aplikatuko da:

- Uztailaren 28ko 22/1988 Kostaldee buruzko Legea eta haren garapen-araudia.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea.
- Portu eta itsas arloko araudia, bereziki Eusko Jaurlaritzaren eskumenei dagokienez.
- Aplikagarri diren gainerako xedapenak.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean, eta indarrean egongo da indargabetzen edo aldatzen ez den bitartean.